


LIVINGSTONE DOKTOREA AGURTU EZAZU...



GALDUTAKO ANIMALIEN BILA
HONDARRIBIA ESPLORATZEN



1 Buru biko arranoa



Hondarribiko gazteluak Erdi Aroko jatorria du, baina Arma Plazatik ikusten dugun fatxada Espainiako Karlos I.aren (1518-1556) eta Germaniako Erromatar Inperio Santuaren V. aren erregealdian egindako handitze bati dagokio.

Gotorleku soila da, apaingarri gutxi ditu, ate inguruan ikusten diren armarrak eta moldura ez baitira originalak, 1968an erantsiak izan ziren, turismoaren paradoxa bihurtu zenean. Armarran, Karlos V. aren arma sinplifikatuak ikusten dira, bere enperadore izaera **buru biko arranoarekin** eta koroarekin irudikatzen da.

Animalia gehiago aurkitzen jarraitzen dugu, armarran bertan lehoiak eta urrezko Toisoneko Ordena entzutetsuaren lepokoaren zati den urrezko arku-mearen ardi-larrua ditugu.

2 Herensugea




Gargolak elementu arkitektonikoak dira, eta estalkietatik euri-ura husten duten hodiak dira; horrela, ura hormetan irristatzea eta kalteak eragitea saihesten da. Kasu batzuetan, hodi hauek harrizkoak dira, eta, bertan, apaingarri moduan hainbat irudi zizelkatzen dira, horien artean, kanoiak, animalia errealeak edo mitologikoak, etab.

Hondarribiko Etxebeste etxean, Apezpikuaren etxea bezala ere ezagutzen dena, **herensugeak** irudikatzen dituzten gargolak daude, euren funtzioa apaingarria den arren, XX. mende hasierako gehigarri bat dira.

Antzinako etxe gotortu hau Erdi Aroko harresiarri itsatsita eraiki zen, eta hainbat handitze jasan zituen, deigarrienak, almenak, armarrak eta abar, mende hasieran erantsitakoak dira.

3 Balea



Hiriko armarrak Santa Maria atearen apaintzen du. 1694. urtea grabatua du, baina gaur egungo kokalekuan bakarrik 1881etik, Antonio Berrotaronek kaputxinoen komentutik eramateko enkargua jaso zuenetik, dago.

Lau kuarteletan banatuta dago, eta erdiko zatian, bi izar dituen gaztelu bat dago. Lehen kuartelean, giltza bat duen aingeru bat agertzen da. Bigarrenak lehoi bat, hirugarrenak (behekoa, ezkerrekoa) itsas uhinen gainean, bela zabaldua duen itsasontzi bat eta haren azpian **balea** bat agertzen dira. Laugarrenean uhandre bat eta sirena bat; guzti hori, markes koroa batek eta Guadalupeko Ama Birjinak bi aingeruekin errematatzen dute. Armarrak bandera eta trofeo militarrez apaintuta dago. XIX. mendera arte, Euskal Herriko kostaldeko herrietan balea ehizatzea oso garrantzitsua izan zen, armarrak batzuetan horren irudia sartzeak horrela frogatzen du.

Bidean zehar balea gehiago aurkituko ditugu!

4 Lehoia



Lehoi buru txikia Zumardian dagoen burdinur-tuzko iturriak dituen bi hornigailuetako bati dagokio, Minasoroeta kaletik jaisteko dagoen eskailera baten ondoan.

Bere istorioa oso bitxia da. Bere aurrealdean honakoa ikus daiteke: Errege armarrak bat eta 1888. urtea. Urte horretan Jaizkibelgo Guadalupeko gotorlekuaren lehen lanak egiten ari dira, Hondarribiko hirigune historikotik bost kilometrora aurkitzen da.

Egin beharreko obraren artean, ur-hornidura zegoen. Iturriak ura langileen eskuetan jartzen zuen. Ura, bi tarteko gordailuetatik igaro ondoren, Gotorlekutik hiru kilometrora hartzen zen.

Bi hodiez gain, beheagoko beste zulo batzuk ere baditu, eta horietatik, ura hainbat obra-lekutan banatzeko, tutuak atera daitezke.

Iturria Gotorlekuaren kanpoaldean zegoen, sarretatik gertu; Gotorlekua itxi ondoren, parroquia-elizaren ingurura eraman zuten, gaur egungo tokira iritsi arte.

Iturria koroatzen duen ur-bonbaren sugarra besterik ez zaio falta eta egindako erreforma argi ikusten da, ura etengabe ez isurtzeko tenporizazio-sakagailu moderno bat gehitu zaio eta.

Ur trago bat edateko aprobeitza ezazu!



1 BURU BIKO ARRANOA Gazteluko armarria

Bertako "hiriko faunaren" animaliak aurkitzeko aitzakiarekin, Hondarribia esploratzeko ibilbide bat hasten ari zara.

Planoa puntu batetik bestera joateko erabili, eta bakoitzari dagokion testua irakur ezazu. Hegan egiten hasiko gara...



2 HERENSUGEA Etxebeste etxeko gargola

Kale Nagusitik jaitsi eta, atea zeharkatu baino lehen, ezkerretara dagoen kale batetik desbideratu zaitetz. Handik irtetean, gora begiratu ezazu.



3 BALEA Santa Maria ateko armarria

EZ zara galduko... atearen kanpoaldeko goialdean dago. Argazkia xehetasun bat besterik ez da. Geziak balea seinatzen du.



4 LEHOIA Hodia, Alamedako iturria

Galtzadara iritsi arte jaisten jarraitu ezazu, zebra bidetik gurutzatu eta Zuhaitzi bateraino iritsi arte eskailerak jaitsi ezazu. Inguruan historia bitxiko iturri bat ikusiko duzu.




5 BELTXARGA Leda, beltzargen parkea

Lehen zeuden ingurura bueltatu zaitetz. Lorategi batzuk eta urmael bat ikusiko dituzu. Mutur estuene hurbildu zaitetz.



Ibilbidearen hasierara itzultzeko, Santiago de Compostela kalea hartu: Gipuzkoa plaza ederrera iritsiko zara, eta handik, San Nikolas kale zaharretik, berriz ere ARMA PLAZA n egongo zara.



0 50 m



10 KATIOA

Poeta hondarribiarrei omenaldia.

Sabino Arana etorbidetik eta errotonda batera iristen zarenean, malda txikia duen Javier Ugarte kalean sartu zaitetz. Monolito batetik igaro ondoren, parke txiki batera iritsiko zara, bertan katioa dago.



9 LEHOIA

Sabino Arana etorbidetik jarraitu eta laster igogailu panoramiko bat ikusiko duzu. Igogailutik oso gertu, belar gainean etzanda dago.



8 HARTZA

Hartza eta gurbitza

Balearentz bueltatu zaitetz eta Sabino Arana etorbidetik jarraitu ezazu beste parke txiki batera iristen zaren arte.



7 ZALDIA

Joan Jainkoarena

Aurreko geltokitik haren irrintziak entzungo dituzu!



6 BALEA

Baleazaleei omenaldia

Lorategitik jarraitu biribilgune batera iritsi arte. Aingura pare bat ikusiko dituzu erliebe baten alboetan. Begirada bat bota iezaiozu.

DIŠTANTZIA: 1etik
10erako puntuak: 1.200 m.

5 Beltxarga



Leda irudikatzen duen emakume baten eskultura eder eta estilizatu batekin topo egingo duzu. Zutik dago, **beltxarga** bat hanken ondoan du, eta eskuekin lepoa samurki laztantzen dio. Beltxargaren mokoa, jatorrian, ur-hornigailu bat zen.

Leda, greziar mitologiaren arabera, Testioren alaba eta Espartako Tindareoren emaztea zen. Zeusek limurtu zuen, horretarako beltxarga baten forma hartu zuelarik. Gertaera mitologiko honen aldaera ezberdinak daude.

1952an José Díaz Bueno eskultoreak egindako eskultura hau, hartzintzarrez morteroa erabilita egina dago eta barnean metalezko egitura du.

Pedro Muguruza arkitektoak (1952) diseinatutako "beltxargen lorategia" izeneko multzo baten zati da. Multzo horretan, garrantzi berezia hartzen duen trapezio itxurako urmael batek, garai batean beltxargen bizileku izan zen. Hegaztiak kendu ondoren, urmaelaren barruan ur-hornigailuak jarri zituzten.

8 Hartza



Hartza eta gurbizta "Madrilgo plaza" izeneko multzo "banaezin" baten zati da, XX. mendearen erdialdean hirira joaten ziren udatiar madrildar ugarien presentzia eskertzeko asmoz sortu zen.

1955. urteko eskultura hau, José Díaz Bueno eskultorearen eta plazaren urbanizazioaren egilea den José María Muñoz-Baroja arkitektoaren arteko lankidetzaren emaitza izan zen. Bere elementu nagusiak, urmael oso luze bat, beltxargak gordetzeko erabiltzeko pentsatu zena, eta hartza eta gurbitzaren eskultura dira. Azken hau, urmaelaren uren gainetik plater bati eusten dion zilindro baten bidez altxatzen da. Hori guztia erdi-puntuko arku baten barruan dago.

Izatez, hartza, urmaelerantz tantaka doan emari ahuleko iturri baten zati da.

Eskultura, gurbiltz baten irudikapen oso estilizatu batez osatuta dago, non hartz bat, aurreko hankekin heltzen zaion, madrildar ikur argi eta garbi baten antzeko posizioan agertzen da.

6 Balea



San Felipe gotorlekuaren izkin batean, behe-erliebategi batean, XV. mendeko hondarribiar baleazaleen omenezko monumentuaren zati den **balea** bat dago.

1954ean José Díaz Buenok egindako obra da. Hareharrizko horma batez eta itsasoan aurkitutako bi ainguraz osatutako eszenografia batez markoztatuta dago. Behe-erliebea eskaiolazko moldeetan gogortutako 10 zementu zurizko plakaz osatuta dago. Ezkerrean, lau tripulatzaile dituen belaontzi bat, eta eskuinean, berriz, hiru tripulatzaile dituen arraunerako bi ontzi txikiago irudikatuta daude. Arraunerako bi ontzi horietako tripulatzaileek, irudiaren erdialdean dagoen balea arpoitzen saiatzen ari dira.

Goialdean, Guadalupeko Ama Birjinaren irudikapen txiki bat ikus daiteke, hain ofizio gogorra betetzen duten hondarribiarren Ama Birjinaren babes sinbolizatu nahi delarik.

9 Lehoia



Kareharriz egindako **lehoi** bat botata irudikatzen duen eskultura. Eskulturaren zati bereiezina den harrizko oinarri bat du, gaur egun hormigoizko gainazal baten gainean kokatuta dagoena.

Francisco Sagarzazu alkateak, marmol-denda baten jabea zena, hiriari dohaintzan eman ziola uste da. Bere langileetako bat, dirudienez, eskulturaren egilea izan zen. Ez da bereziki bere kalitateagatik nabarmentzen, baina hondarribiar askori bere haurtzaroko oroitzapen onak ekartzen dizkie.

Eskultura bidaiaria ere izan da, hiriaren urbanizazio-prozesu etengabearen ondorioz lehen kokatuta zegoen lorategi batzuk desagertu ziren.

Utz dezagun lehoia lasai eta gure azken helbururantz joan gaitezen...

7 Zaldia



Juan (geroagoko Joan Jainkoarena), XVI. mendean Hondarribiaren defentsan borrokan ari zen soldadu portugaldarra, zauritu egin zen. Tradizioak dioenez, Ama Birjinak, artzainez jantzita, lagundu zion.

José Díaz Buenok 1947an egindako eskultura taldea hiru irudik osatzen dute: Juan soldadua (burdin jantziarekin) erdi etzanda; Ama Birjina (bere koroarekin) artzainez jantzita eta ezkerreko eskuan makulu bat darama, beste eskua laguntzeko keinuan eskaintzen diolarik; azkenik, zutik dagoen zaldia dago.

Konposizioa nahiko behartua ikusten da, oreka ezegonkor baina oso adierazkorren itxura emanez.

Harri artifizialez egin zen, atalen araberako moldeak erabiliz, eta horien junturak distantzia ertainean ere antzeman daitezke. Ama Birjinaren koroa zein makulua metalezkoak dira.

Eskultura Pedro Muguruza arkitektoak urbanizatu-tako biribilgunearen gainean kokatuta dago.

10 Kaioa



1967an Udalak "poeta ondarribarrei" izena ematen zion hilarri bat estalgabetzea erabaki zuen; testuinguru horretan sarituak izan zirenak aipatzen dira, zehazki: Claudio Sagarzazu (Sartarka), Juan Baxurko, Fernando Artola (Bordari), Rafael Artola eta Javier Aranburu.

Harrizko egitura geometriko baten gainean hareharrizko esfera bat altxatzen da, hegalean dagoen eta hegalek zabaldua dituen kaio baten irudiaren euskarri gisa balio duena.

Jatorriz iturri bat zen. Egitura geometrikoaren zulo batetik ura irteten zen, eta gaur egun kontserbatzen ez den maskor itxurako pila baten gainera erortzen zen.

Ibilbidea amaitu dugu! Hasi zinen lekuan amaitu nahi baduzu, lehenik eta behin, Santiago de Compostela kalea har dezakezu. Gipuzkoa Plazatik igarota, San Nikolas kalera iritsiko zara. Kale horrek hasiera puntura eramango zaitu.